

Nafarroako Lan Autonomoaren Feriaren II. edizio honek biltzeko eta elkar topatzeko lekua izan nahi du beren lana ezagutarazteko gogoia eta Nafarroako ekonomiaren arlo anitzetan ari diren profesionalekin hartu emanak izateko gogoia duten pertsona autonomoentzat. Ferian parte hartu dezakete, eremuan stand bat jarrita, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezian edo dagokion Lanbide Elkargoaren Mutualitatean alta emanda dauden eta Nafarroako Foru Komunitatean jarduten duten pertsona guztiek.

Tokia, egunak eta ordutegia.

Nafarroako Lan Autonomoaren II. Feria Baluarte Biltzar Jauregia eta Auditorioan egingen da, 2019ko irailaren 28 eta 29an, goizeko 10:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00ak arte.

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko eskabidea formalizatzeko eta, ondorioz, ferian erakustokia izateko, **Inskripzio Eskabidea**, modu egokian beteta, igorri behar da.

Eskabideen onarpena Antolakuntzaren eskumena da, eta ezesten ahalko ditu ferian parte hartzeko baldintza egokiak betetzen ez dituzten eskaerak.

Antolaketa.

Feriaren antolakuntzaren arduraduna Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako Departamentuaren Lan Zerbitzua da.

Standen esleipena, Foru Komunitateko jarduera-arlo anitz bertan egotea lortzearren, honako lehentasun-irizpide honen arabera egingen da: inskripzio eguna eta pertsona autonomoaren jarduera mota.

Parte-hartzaileek 4 metro luze eta 2 metro zabal den leku gardena izanen dute. Antolakuntzak oinarrizko altzariak jarriko ditu, hau da, 1,80 bider 60ko erakus-mahaia, zango-babes zuri edo beltzez jantzia, eta bi aulki. Espazio horren apainketa librea da eta autonomoak bere kabuz egin beharko du (roll up, luma-kartoia, altzariak, ordenagailu-pantailak, erakutsi nahi diren produktuak, etab...).

Muntaketa lanak 2019ko irailaren 26 eta 27an egingen dira, eta ezin izanen ditu eginu inskribatutako pertsona ez den beste inork. Desmuntatzeko lanak 2019ko irailaren 30ean egingen dira.

Erakusten duen autonomia izanen da bere lekuan aurkezten diren produktuen eta haien presentziak edota erabilerak sor ditzaketen ondorio juridikoen arduraduna.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko standean jarritako materialen lapurretaren edo ebasketaren ardurarik, ez eta muntaketa, erakusketa eta eraispena bitartean horik jasan ditzaketen kalteen ardurarik ere.

Kontrataturako espazioak indibidualak dira, eta debekatuta dago hirugarrenei uztea onarpen-eskubideak edo standa, osoa nahiz zati bat, aldez aurretik antolakuntzak horren berri izan eta onartu ez badu.

Feria egiterik ez balego, antolakuntzaren esku ez den zerbaitengatik, antolakuntzak ez die kalte-ordainik zertan eman parte-hartzaileei.

Debekatuta daude ke- nahiz gas-isurtzeak eta 60 dezibelio baino gehiagoko erakustaldi zaratatsuak, standaren ertzean neurtuta, Feria egiten den bitartean, inguruko standei eta bisitan hurbiltzen diren profesionalei zor zaien begiruneagatik, eta orobat debekatuta, gai arriskutsu, suharbera, leherkor edo osasungaitzak biltzea, erakustea nahiz erabiltzea ere.

Parte Hartzeko Baldintza Orokor hauek derrigor bete behar dituzte parte hartzaileek.